



# ARANTZAKO UDALA

---

## OSOKO BILKURA ARRUNTAREN AKTA

---

**Organoa:** Udalbatza

**Deialdia:** Lehenengoa

**Bilera mota:** Arrunta

**Eguna:** 2024.03.15

**Ordua:** 16:30

**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia

**Bertaratuak:**

- ALKATEA: Saturnino Larralde Ibarrola, EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio, EH Bildu. *4. puntutik aitzin atera da.*
- Ana Maeztu Villanueva, EH Bildu.
- Andoni Mitxelena Danboriena, EH Bildu. *2. puntutik aitzin atera da.*
- Julen Oskoz Elizondo, EH Bildu.
- Igor Ugalde Salazar, EH Bildu.

**Bertaratu ez direnak:**

- Itziar Arotzena Bergara, EH Bildu.

**Idazkaria:** Nagore Madariaga Iriarte

**AZTERGAIAK:**

1. Aurreko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onespena.
2. 2024ko aurrekontua eta exekuzio oinarriak. Hasierako onespena.
3. 2024ko plantilla organikoa. Hasierako onespena.
4. 5. poligonoko 420. lurzatiko Hiri Jarduketarako Plan Berezia onartu aitzineko planeamenduko hirigintza-hitzarmena. Behin betiko onespena.
5. 2023-2024ko kanpainan Arantzako herri-lurretan burutu beharreko mendiko lanen obra kontratua, plegu arautzailearen eta lizitazioaren onespena.
6. Bortzirietan Berdintasun Zerbitzua emateko 2021eko maiatzaren 28an sinaturiko hitzarmena aldatzea onestea.
7. Alkate Ebazpenak.
8. Amekurrun eta Soraeta parajeetan oihan aprobetxamendua egiteko BIGARREN enkantea arautuko duen plegu arautzaileen eta prozedura abiaraztearen onespena, %10eko beherapenarekin.
9. Eskaerak eta galderak.



# ARANTZAKO UDALA

## 1. AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONESPENA.

2024/02/16ko osoko bilkura arrunteko akta AHO BATEZ ONETSI da.

## 2. 2024KO AURREKONTUA ETA EXEKUZIO OINARRIAK. HASIERAKO ONESPENA.

Idazkariak 2024ko aurrekontua eta haren exekuzio oinarriak azaldu ditu.

### DIRU-SARRERAK:

- I. kapitulua. Zuzeneko zergak: 176.460,00
- II. kapitulua. Zeharkako zergak: 35.000,00
- III. kapitulua. Tasak, prezio publikoak eta bertzelako diru-sarrerak: 52.750,00
- IV. kapitulua. Transferentzia arruntak: 349.663,38
- V. kapitulua. Ondareko diru-sarrerak eta herri-lurretako aprobetxamenduak: 40.070,00
- VII. kapitulua. Kapital transferentziak: 81.827,08
- Diru-sarrerak, guztira: 735.770,46

### GASTUAK:

- I. kapitulua. Langileria gastuak: 285.820,81
- II. kapitulua. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak: 217.447,50
- III. kapitulua. Finantza gastuak: 3.740,00
- IV. kapitulua. Transferentzia arruntak: 76.939,13
- VI. kapitulua. Inbertsio errealak: 120.900,00
- IX. kapitulua. Finantza pasiboak: 30.923,02
- Gastuak, guztira: 735.770,46

Horrela bada, azaldu du 2024ko aurrekontua eta haren exekuzio oinarrian onartzeko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 267tik 272ra bitarteko artikuluetan xedatutakoaren arabera egin beharra dela.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

- 1.- 2024ko aurrekontua eta haren exekuzio oinarriari hasierako onespena ematea.
- 2.- Hasierako onespeneren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Arantzako Udaleko iragarki taulan argitaratzea, hamabortz eguneko epean herritar eta interesdunek espedientea aztertu eta hala deritzoten erreklamazio edo alegazioak aurkez ditzaten.
- 3.- Adierazitako epean erreklamazio edo alegaziorik aurkezten ez badira, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202. artikuluan xedatutakoaren arabera, behin betiko onestea 2024ko aurrekontua eta iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.



# ARANTZAKO UDALA

*\* Andoni Mitxelena Danboriena bileratik atera da.*

## **3. 2024KO PLANTILLA ORGANIKOA. HASIERAKO ONESPENA.**

Idazkariak Arantzako Udalaren 2024ko plantilla organikoa azaldu du.

Horrela bada, azaldu du Arantzako Udalaren 2024ko plantilla organikoa onartzeko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 235. artikuluan xedatutakoaren arabera egin beharra dela.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

- 1.- Arantzako Udalaren 2024ko plantilla organikoari hasierako onespena ematea.
- 2.- Hasierako onespeneren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Arantzako Udaleko iragarki taulan argitaratzea, hamabortz eguneko epean herritar eta interesdunek espedientea aztertu eta hala deritzoten erreklamazio edo alegazioak aurkez ditzaten.
- 3.- Adierazitako epean erreklamazio edo alegaziorik aurkezten ez badira, behin betiko onestea 2024ko plantilla organikoa eta iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

## **4. 5. POLIGONOKO 420. LURZATIKO HIRI JARDUKETARAKO PLAN BEREZIA ONARTU AITZINEKO PLANEAMENDUKO HIRIGINTZA-HITZARMENA. BEHIN BETIKO ONESPENA.**

Ikusirik Arantzako Udaleko idazkariak prestaturiko planeamenduko hirigintza-hitzarmena, Jose Miguel Errandonea Ordokik sustaturiko 5. poligonoko 420. lurzati Hiri-Jarduketarako Plan Berezia onartzeari buruzkoa, eraiki nahi diren 4 etxebizitzetatik 2ren salmenta arautzeko.

Ikusirik 2023ko urriaren 30ean egindako osoko bilkura arruntean aipaturiko hirigintza hitzarmenari hasierako onespena eman zitzaiola.

Ikusirik hasierako onespeneren iragarkia 2023ko azaroaren 9ko 233. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela eta jendaurreko epean ez zirela alegaziorik aurkeztu.

Kontuan hartuta Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen testu bateginaren (urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) 9.8, 25.1 eta 61. artikuluetan, eta Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 23., 24. eta 26. artikuluetan xedaturikoa, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 8.2 artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) artikulua ematen dituen eskumenak ikusirik.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:



# ARANTZAKO UDALA

1.- Aipatutako 5. Poligonoko 420. Lurzatiko hiri jarduketarako plan berezia onartu aitzineko planeamenduko hirigintza-hitzarmen proiektuari behin betiko onespena ematea.

2.- Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udalaren egoitza elektronikoan argitaratzea, aipatutako hirigintza-hitzarmenaren behin betiko testuarekin batera, behin formalizatuta.

3.- Ebazpena sustatzaileei jakinaraztea, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

**\* Leire Mitxelena Gamio bileratik atera da.**

## **5. 2023-2024KO KANPAINAN ARANTZAKO HERRI-LURRETAN BURUTU BEHARREKO MENDIKO LANEN OBRA KONTRATUA, PLEGU ARAUTZAILEAREN ETA LIZITAZIOAREN ONESPENA.**

Ikusirik Arantzako herri-lurretako 2023-2024 kanpainako mendiko lanen obra kontratuaren lizitazioa arautuko duen plegu arautzailea.

Ikusirik 2024ko martxoaren 12an idazkari-kontuhartzaileak aipaturiko plegu arautzaileari aldeko txostena egin diola.

Ikusirik, laburbilduta, hauek direla lizitazioaren nondik norakoak:

- Lizitazioaren aurrekontua: 61.266,42 €, BEZa kanpo.
- Prozedura: sinplifikatua.
- Tramitazioa: arrunta.
- Eskaintzak aurkezteko epea: 15 egun naturalekoa.
- Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratua: ez.

Ikusirik Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeko 28, 80, 94 eta hurrengo artikuluetan xedaturikoa.

Osoko bilkurara bertaraturako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Arantzako herri-lurretako 2023-2024 kanpainako mendiko lanen obra kontratuaren lizitazioa egiteko plegu arautzaileari eta lizitazioa abiarazteari onespena ematea.

2.- Aipaturiko obra kontratuaren lizitazioa Nafarroako Kontratu Publikoen atarian ez argitaratzea.

3.- Aipaturiko obra kontratuaren lizitazioaren gonbidapena ondorengo enpresei helaraztea:

- LASAGA ANAIK REPOBLACIONES, S.L.
- REPOBLACIONES ETXARTE, S.L.
- BERDABIO BASOGINTZA, S.L.
- OIHAN ZERBITZUAK, S.L.
- REPOBLACIONES AGUINAGALDE, S.L.
- LIZELAN, S.L.



## ARANTZAKO UDALA

### 6. BORTZIRIETAN BERDINTASUN ZERBITZUA EMATEKO 2021EKO MAIATZAREN 28AN SINATURIKO HITZARMENA ALDATZEA ONESTEA.

Bortzirietan Berdintasun Zerbitzua emateko hitzarmena 2021eko maiatzaren 28an sinatu zen eta horren iragarkia 2022ko martxoaren 14ko 52. zk. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hitzarmenaren xedea da udal bakoitzak eta Nafarroko Gobernuak ezartzen dituen berdintasun programak garatzeko Igantziko Udalak kontratatuko duen (dagoeneko kontratatua dago) berdintasun teknikariaren bidez Bortzirietako udaletan Berdintasun Zerbitzua ematea.

Zentzu horretan, aipaturiko hitzarmenaren zazpigarren klausulan xedaturikoaren arabera, hitzarmenaren iraupena 2024ko maiatzaren 28ra artekoa da eta hura luzatu edo aldatzeko aukera dago.

Horrela bada, aipatzekoa da Bortzirietako udalek zerbitzu guztiak batuko dituen mankomunitate bakarra eratzeko nahiarekin, osoko bilkuretan Hiri Hondakinak Kudeatzeko Mankomunitatea eraldatzeko eta berregituratzeko eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatea, Euskara Mankomunitatea eta berdintasunaren arloko hitzarmena desegiteko prozedurak abiaraztea adostu zutela. Halaber, nahiz eta desegite hauek 2024ko azaroaren 30eko eraginarekin izan litezkeela aurreikusten den, Bortzirietan Berdintasun Zerbitzua emateko hitzarmena aldatzea eta iraupena luzatzea adostea gomendagarria dela ondorioztatu da.

Alde batetik, finantzaketa eta gastuen portzentajeak erregulatzen dituen laugarren klausula aldatzea gomendatzen da (2025eko urtarrilaren 1etik aitzinerako eraginarekin). Izan ere, hitzarmena sinatu zenetik gaur egun arte Bortzirietako herrietako biztanle kopurua nabarmen aldatu da:

HERRIA	BIZTANLEAK*	PORTZENTAJEA (%)
ARANTZA	610	7,14
BERA	3.792	44,41
ETXALAR	833	9,76
IGANTZI	572	6,70
LESAKA	2.731	31,99
<b>GUZTIRA:</b>	<b>8.538</b>	<b>100</b>

\*2023ko urtarrilaren 1eko biztanleria datuak.

Bertze aldetik, hitzarmenaren iraupena bertze lau urtez luzatzea gomendatzen da. Dena dela, Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitatea eratzeko prozeduraren izapideen baitan, hitzarmeneko alderdi sintzaileek aho batez hala adostuz gero, hitzarmena azkendu ahal izanen da.

Hori guztia Nafarroako Toki Administrazioei buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 70. artikuluan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko 49. g) eta h) 2º eta 51.2.b) artikuluetan xedaturikoaren arabera.

Osoko bilkurara bertaraturako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:



## ARANTZAKO UDALA

1.- 2021eko maiatzaren 28an sinatutako Bortzirietan Berdintasun Zerbitzua emateko hitzarmenaren laugarren eta zazpigarren klausulak aldatzea onestea. Horrela bada, klausulen idazkia honela finkatzen da:

*"LAUGARRENA.- Finantzaketa eta gastuak. Kostuen banaketari dagokionez, 2025eko urtarrilaren 1etik aitzinerako eraginarekin, Arantzako Udalari %7'14an, Berako Udalari %44'41ean, Etxalarreko Udalari %9'76an, Igantziko Udalari %6,70ean eta Lesakako Udalari %31'99an egotziko zaie.*

*(...)*

*ZAZPIGARRENA.- Epea. Hitzarmen hau bertze lau urtez egonen da indarrean. Halaber, Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitatea eratzeko prozeduraren izapideen baitan, alderdiek aho batez hala adostuz gero, hitzarmena azkendu ahal izanen da."*

2.- Ahalmen nahikoa ematea Arantzako Udaleko alkateari Bortzirietan Berdintasun Zerbitzua emateko hitzarmenaren aldaketa sinatzeko.

3.- Akordio hau Igantziko Udalari jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

### 7. ALKATE EBAZPENAK..

2024ko 25etik 46ra Alkate Ebazpenak azaldu eta AHO BATEZ BERRETSI EGIN DIRA.

Halaber, hurrengo osoko bilkura apirilean izanen dela jakinda eta akordio bat hartzeko dagoen premia ikusirik, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 81.2. artikuluan eta Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 91.4. xedaturikoaren arabera, ondorengo puntua osoko bilkura honetan eztabaidatu daitekeela dio idazkariak osoko bilkurak gehiengo osoz ahala adostuz gero.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek legezko kide kopuruaren gehiengo osoa izanik, AHO BATEZ ERABAKI DU ondorengo puntua osoko bilkura honetan eztabaidatzea:

### 8. AMEKURRUN ETA SORAETA PARAJEETAN OIHAN APROBETXAMENDUA EGITEKO BIGARREN ENKANTEA ARAUTUKO DUEN PLEGU ARAUTZAILEEN ETA PROZEDURA ABIARAZTEAREN ONESPENA, %10EKO BEHERAPENAREKIN.

Idazkariak adierazi du Amekurrun eta Soraeta parajeetan (1. Lotea) oihan aprobetxamendua egiteko enkantean eskaintzak aurkezteko epea 2024ko martxoaren 13ko eguerdiko 14:00etan bukatu zela eta interesdun batek ere ez duela eskaintzarik aurkeztu.

Horrela bada, azaldu du Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 143.1. eta 166.2. artikuluetan xedaturikoaren arabera, bigarren enkantea egin daitekeela %10eko beherapenarekin.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:



## ARANTZAKO UDALA

1.- Amekurrun eta Soraeta parajeetan oihan aprobetxamendua egiteko bigarren enkantea arautuko duen plegu arautzaileen eta prozedura abiaraztea onestea, %10eko beherapenarekin.

2.- Aipaturiko oihan aprobetxamendu salmenta enkantearen plegu arautzaileak eta plegu teknikoa Nafarroako Kontratazio Atarian eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea, 15 egun naturalez, interesdunek euren eskaintzak aurkez ditzaten.

### 9. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egiten.

Bertze aztergairik izan gabe, 19:00ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

**ALKATEA,**

2024.03.27

12:27:34

+01'00'

Saturnino Larralde Ibarrola

**Ziurtatzen dut  
IDAZKARIA,**

Data:

2024.03.27

12:25:40

+01'00'

Nagore Madariaga Iriarte

